

ETXALARKO USO POSTUEN APROBETXAMENDURAKO ENKANTEA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA - 2019

1.- Enkante honen xedea da NA-10.384 ehiza barrutian dagoen Etxalarko Udal honetako uso postuen aprobetxamendua. 21 uso postu daude larmendi alderdian kokatuak.

2.- Esleitutako aprobetxamenduaren iraupena hauxe izanen da: behin betiko esleipenaren egunean hasiko da eta 2019ko abenduaren 8an bukatuko da (egun horretatik aurrera postuak desmuntatu ahalko dira).

3.- Lizitazioaren hasierako prezioak honako hauek dira:

POSTUA	PREZIOA
1. postua	940,00
2. postua	940,00
3. postua	2.255,00
4. postua	1.755,00
5. postua	2.255,00
6. postua	1.755,00
7. postua	2.255,00
8. postua	3.335,00
9. postua	2.275,00
10. postua	2.275,00
11. postua	3.335,00

POSTUA	PREZIOA
12. postua	1.690,00
13. postua	1.485,00
14. postua	940,00
15. postua	940,00
16. postua	730,00
17. postua	730,00
18. postua	730,00
19. postua	940,00
20. postua	1.690,00
21. postua	1.690,00

4.- **Enkantea** ahozko posturaren bidez egingen da, Etxalarko udaletxeko bilkura aretoan, **2019KO IRAILAREN 7AN (LARUNBATA), GOIZEKO 12:00etan**, eta sesta emateko aukera izanen da.

5.- Subastan ematen den tanto bakoitza 10 eurokoa izanen da.

6.- Behin-behineko esleipena egin ondoren, hartzaileak hasierako prezioaren %30 ordainduko du, fidantza gisa.

7.- Errentarako ateratzen den zenbatekoa honela ordainduko da:

- Lekua: Herriko Diruzaintzan

- Epea: 2019ko irailaren 27rako.

8.- Esleipen-hartzaileak ordaindu behar dituen zerga eta gaineko gastuak hauek dira:

- Gastuentzat: esleipenaren %2,5.

- BEZ: legearen arabera ezarri behar dena.

9.- larmendin ehizatzeke araudiak ezartzen duen arabera, hasierako enkantean eta dagokion sesta prozeduraren ondotik hutsik gelditzen diren postuak zozketatu ahalko ditu udalak, horri dagokion baldintza-plegu berezia egingen delarik.

10.- Ordaintzeko epea iritsita, postua hartu duenak ordaindu ez balu, udalak, hala izanik, fidantza bereganatuko du eta postu hori zozketan sartuko du. Kasu horretan, zozketa honen barruan sartuko lirateke larmendi lerroko postu guztiak.

11.- Argitu aurretik ez da tirorik botako.

12.- Korneta behin jotzeak erran nahi du ehiztariek ez dutela tiro egin behar, eta bi aldiz segituan jotzen baldin bada, tiro egiten ahal da. Korneta ezarriko da soilik 1-15 uso postuetan (biak barne).

13.- Postu bakoitzeko 3 txartel emanen dira.

14.- Ehiztariek postuak egunero garbi utziko dituzte saioa bukatutzat eman ondoren, hau da, postuetatik lekutu aurretik.

15.- SESTA EMATEKO PROZEDURA honela gauzatuko da:

- o Enkantean aterako dira, hala bada, irailaren 7ko enkantean hartu gabe gelditutako postuak eta sesta emateko epean ukituak izan direnak.
- o Enkantearen prozedura: 3 aukera emanen dira eskaintzak hobetzeko, eta tanto bakoitza 10 eurokoa izanen da.
- o Sestaren enkanteko egunean egiten diren esleipenak behin betikoak izanen dira.
- o Esleipendunek ordaindu beharreko gastuak hauexek dira:
 - * BEZ: : legearen arabera ezarri behar dena
 - * Gastuak: % 2,5
- o Fidantza: enkanteren ondotik hasierako prezioaren %30 kobratuko da, fidantza gisa.
- o Ordainketak 2019ko irailaren 27rako egingen dira.

Udalbatzak baldintza-plegu hau onartu du 2019ko uztailaren 4an eginiko bileran.

ALKATEA,
Miguel M^a Irigoien Sanzberro